

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

| | | | |
|---|--|--------------|-----|
| PRESTAKUNTZA-ATALA | LASER-DEPILAZIOA ETA FOTODEPILAZIOA | Iraupena | 50 |
| | | Baldintzatua | |
| Kodea | UF1157 | | |
| Lanbide-arloa | Irudi pertsonala | | |
| Lanbide-eremua | Estetika | | |
| Profesionaltasun-ziurtagiria | Beltzarantzea, makillajea eta depilazio aurreratua. | Maila | 3 |
| Prestakuntza-modulua | Aldi baterako eta/edo behin betiko metodoen bidezko depilazioa | Iraupena | 140 |
| Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak | Bezeroari depilatzeari buruzko aholkuak ematea eta bezeroa depilatzeako prestatzea | Iraupena | 40 |
| | Depilazio estetiko profesional mekanikoa eta elektrikoa | | 50 |

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0581_3 BEHIN BETIKO DEPILAZIOA EGITEA ETA/EDO ALDI BATERAKO DEPILAZIOKO PROZESUAK GAINBEGIRATZEA gaitasun-ataleko LB6 eta LB7 lanbide-burutzapenekin, laser-depilazioko eta fotodepilazioko zerbitzuei eta prozesuaren kalitatearen ebaluazioari dagokienez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Laser-depilazioko eta fotodepilazioko teknikak segurtasun-, higie- eta osasun-baldintzak betez aplikatzea.

EI1.1 Laser-depilazioko eta fotodepilazioko protokolo estandarizatuak interpretatzea, kasu bakoitzerako aukeratutako parametroak arrazoituz.

EI1.2 Fotodepilazioko ekipoen oinarriko ezaugarriak azaltzea.

EI1.3 Laser-depilaziorako eta fotodepilaziorako larruzala hozteak duen garrantzia justifikatzea.

EI1.4 Laser-depilazioko eta fotodepilazioko kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Bezeroa depilatuko zaion gunera erraz iristeko posizio anatomikoan kokatzea, eta tratamenduak zer sentsazio eragiten dituen eta aplikatzen den bitartean zer gorabeheren berri eman behar duen jakinaraztea.
- Laser bidezko edo intentsitate handiko pultsukako argi bidezko fotodepilazioko ekipok tratamendu-parametroak —energia-dentsitatea, pultsuaren iraupena eta maiztasuna— programatuz prestatzea, ezarritako protokolo pertsonalizatuaren arabera.
- Depilatu beharreko gunea mugatzea eta depilatzea, ziurtatuz ilerik ez dela ari ateratzen eta gainazalean ilerik ez dela geratzen.
- Tratatu beharreko gunea produktu antiseptiko batean bustitako euskarri baten bidez tratatzea.
- Bezeroaren eta profesionalaren begiak behar bezala babestea, ezarritako segurtasun-arauei jarraituz.
- Aukeratutako laser-depilazioko edo fotodepilazioko aparatuaren edo teknikaren arabera eta bezeroak sentitzen dituen sentsazioen arabera aplikatzea larruzala hozteko metodo egokiak.
- Tratamendu-burua tratamendua hasteko gunean jartzea, argi-igorpenari eragitea, eta, tiro bakoitzaren ondoren, burua mugitzea —distantzia eta maiztasun egokiak baliatuta— gune osoa estali arte.
- Erabilera topikoko produktuak antiseptiko, lasaigarri, deskongestionatzaile eta birsortzaile gisa aplikatzea, eta bezeroari adieraztea komeni dela eguzki-babesa erabiltzea.
- Segimendu-fitxan jasotzea fitxa betetzeko eskatzen diren datuak eta saioan gertatutako gorabeherak.
- Erabili den erabili eta botatzeko material guztia behar bezala botatzea, eta hurrengo saioetan erabil daitekeen material guztia behar bezala garbitzea eta desinfektatzea.

A2: Depilazio-prozesuak ebaluatzea, eta lortutako emaitzak baloratzea, behar izanez gero zerbitzuaren kalitatea hobetzeko neurriak proposatzeko.

EI2.1 Zerbitzuaren kaliterako erabakigarriak diren alderdiak identifikatzea, depilazio-prozesuak aztertuz.

EI2.2 Prozesuaren, zerbitzuaren eta lortutako emaitzen kalitatea ebaluatzeako aukera ematen duten irizpideak zehaztea eta azaltzea.

EI2.3 Bezeroaren gogobetetze-maila —zerbitzuaren emaitzari buruzkoa zein jasotako arreta pertsonalari buruzkoa— zein den jakiteko aukera emango duten galdera tipoak egitea.

EI2.4 Ematen den zerbitzuan hutsuneak eragin ditzaketen kausa teknikoak eta bezeroarentzako arretakoak aztertzea.

EI2.5 Modelo bat depilatzeako kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Depilazio-prozesuetako kalitate-adierazleak identifikatzea.
- Emaitzetan aurreikusitako emaitzekiko gertatu diren desbideratzeak detektatzea eta aztertzea, eta desbideratzeak eragin dituzten kausak identifikatzea.
- Zerbitzua emateko prozesua eskematizatzea, eta detektatutako anomaliak haiek gertatutako fasearekin lotzea.
- Behar izanez gero, kalitatea hobetzeko neurri zuzentzaileak proposatzea.

EI2.6 Komunikazio-protokoloak ezarritako kalitate-parametroak kontuan hartuz aplikatzen diren egiaztatzea.

EI2.7 Instalazioei, baliabide teknikoari eta produktuei buruzko araudia, indarrean dagoena, betetzen den ala ez ikusteko segimendua egitea.

Edukiak

1. Fotodepilazioa eta laser-depilazioa.

- Erradiazio elektromagnetikoak. Definizioa eta oinarriko kontzeptuak.
- Fotodepilazioaren definizioa.
- Laser-depilazioaren helburua.
- Fotoiak sortzea.
- Laserra: ezaugarriak eta oinarri fisikoak.
 - Monokromatikotasuna.
 - Koherentzia.
 - Zuzengarritasuna.
 - Intentsitatea.
- Laserraren sailkapena, elementu sortzailearen arabera: solidoak, likidoak, gaseosoak eta erdieroaleak edo diodoak.
- Laserraren sailkapena, potentziaren arabera: potentzia handia edo txikia.
- Laser-depilazioaren oinarria: Laserraren eta ehunen arteko interakzioa.
 - Argi-sortaren optikoa.
 - Laserraren ezaugarriak ehunetan.
 - Kromoforoak.
 - Laserraren ekintza-mekanismoak. Efektuak.
- Laser-depilazioan eragiten duten faktoreak:
 - Ilean kolorea.
 - Melanina: fototipoak eta fotoetnotipoak.
- Fotodepilazioaren oinarria:
 - Fotodepilazioaren mekanismoak.
 - Dosimetria.
 - Kromoforoaren garrantzia.
 - Uhin-luzera hautatzea.
 - Pultsuaren iraupena.
 - Energia-dentsitatea
 - Spotaren garrantzia.
 - Depilazio-laserrak.
- Intentsitate handiko pultsukako argi bidezko fotodepilazioa.
 - Definizioa, ezaugarriak eta oinarri fisikoak.
 - Aukeraketa eta iragazkiak.
 - Programatu beharreko parametroak.
- Intentsitate handiko pultsukako argi bidezko depilazioan eragiten duten faktoreak:
 - Intentsitate handiko pultsukako argiaren ezaugarriak.
 - Pultsu anizkoitzak.
 - Kromoforoak.
- Intentsitate handiko pultsukako argi bidezko depilazioaren oinarria.
 - Ekintza-mekanismoak.
 - Dosimetria.
- Laser-depilazioaren erabilerak.
- Kontraindikazioak: absolutuak, erlatiboak, fotosentikorrek bide topikotik eta bide orokorretik.
- Kontuan hartu beharrekoak.

2 Fotodepilaziorako eta laser-depilaziorako beharrezkoak diren instalazioak, ekipoak eta materiala.

- Laser-depilazioko kabinaren eta instalazioen ezaugarriak.
- Altzariak: ohatila, taburetea edo aulkia, mahai osagarria eta argiztapena.
- Behar den materiala: bizar-aitzurra, babes-betaurrekoak, eskularru esterilak, maskara, bizar-xafla eta beste batzuk.
- Material osagarria: argazki-kamera, anestesiko lokala eta potentzia txikiko laserra.
- Larruazala hozteko sistemak: hotz-poltsak, gela, espraia eta zafiroa.
- Laser-depilazioko edo fotodepilazioko aparatuak: deskribapena, kasu bakoitzean erregulatu beharreko parametroak.
- Laserra eta intentsitate handiko pultsukako argia.
- Segurtasun-araudia.

3 Laser-depilazioko eta fotodepilazioko teknikaren aplikazioa.

- Laser-depilazioaren helburua.

- Jarduera-protokoloa.
- Lehenengo bisita:
 - Bezeroari buruzko informazioa.
 - Fitxa teknikoko eta segimendu-fitxako datuak.
 - Baimen informatua.
- Ekipoen programazioa.
- Teknikaren prozedura.
 - Garbitzea, ileak moztea eta desinfektatzea.
 - Gunea zehaztea.
 - Babestekoa.
 - Gel hozgarria aplikatzea.
 - Ekipoa erabiltzea.
 - Gela kentzea eta deskongestionatzailea aplikatzea.
- Laser-depilazioko parametroen aldaketen adierazleak.
- Arriskuak eta albo-ondorioak.
- Kontuan hartu beharrekoak, laser-depilazioa aplikatu ondorengo zainketak eta geroko saioak.
- Norbera babesteko profesionalen neurriak:
 - Jantzera.
 - Lanerako gomendatutako jarrera-higienea.
- Laser-depilazioko eta fotodepilazioko prozesuetako bezeroa babesteko neurriak:
 - Jantzera.
 - Laser-depilazioko eta fotodepilazioko prozesuetarako gomendatutako jarrera-higienea.

4 Laser-depilazioko eta fotodepilazioko prozesuen ebaluazioa eta kalitate-kontrola.

- Depilazio mekanikoko eta elektrikoko zerbitzuen kalitate-faktoreak.
- Laser-depilazioko eta fotodepilazioko zerbitzuen ebaluazioa eta kalitate-kontrola.
- Laser-depilazioko eta fotodepilazioko zerbitzu baten kalitatea definitzen duten parametroak.
- Bezeroaren gogobetetze-maila kontrolatzea, eta laser-depilazioko eta fotodepilazioko zerbitzuetako desbideratzeak zuzentzea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

UF1155 gainditua izan behar du: Bezeroari depilatzeari buruzko aholkuak ematea eta bezeroa depilatzekeko prestatzea eta UF1156: Depilazio estetiko profesional mekanikoa eta elektrikoa

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Beltzarantzea, makillajea eta depilazio aurreratua.